



2019KO AURREKONTUAK: ELKAR HARTZEN



BILERA MOTA: AUZOTAKO BILERA GURUTZE

ZENBAGARREN SAIOA: 4

Data:	Hasiera ordua:	Bukaera ordua:
2018-10-02	19:30	21:10

BILDUTAKOAK:

Udal ordezkariak:	Iosune Cousillas, Iñaki Pikabea, Eneritz Arbelaitz		
Herritarrak: 6	Euskaraz: 7		Elebitan:
	Emakumezkoak: 2		Gizonezkoak: 5
	<30 urte:	31-50 urte: 1	51-65 urte: 4 >66 urte: 2

AKTA:

Gaia:	Ekarpena eta iruzkinak:
Balorazio orokorra	Partehartzeaz hitz egiterakoan, auzotar batek aipatu du honelako foroetan jende gutxi hartzen duela parte. Zinegotziak auzo guztietara etortzea baliatu behar dela auzoko gaiez hitz egiteko. Kezkagarria ikusten da.
Aurrekontuak 2019	Ez da zalantzarik egon.
Auzoa	<p>Aipatu da iazko bileretatik bi gai daudela egitekoen zerrendan: elbarrientzako aparkalekua hotelaren aldeko zatian eta baranda lijatu eta pintatzea.</p> <p>Txularratik hoteletik barrena doan bideko zuloak konpontzea eskatu da.</p> <p>Iaz autobuseko geltokian ibilgailuentzako espaloari zati bat kentzea proposatu zen. Erantzun da hori ezin dela egin, ez litzatekeela autobusik sartuko, eta autobusa edo taxibusa baldin badago, atzeko kotxeak itxaron egin behar duela, beste geltoki gehienetan bezala.</p> <p>Taxibusaren ordutegiak zabaldu behar dela aipatzen da, geltokian jarrita egon beharko lukeela. Bestalde, asteburuetan eta abuztuan ere beharra</p>

	<p>ikusten dute. Elizaldeko geltokian zehazki noiz geratzen den ordutegian ere jartzea eskatzen da (eguerdietan): 13:00etan eta 14:00etan. Bestalde, aipatu da Taxibusa ez dela geratzen paradan eta gelditu egin behar duela erabiltzaileek ondo ikusi ahal izateko.</p> <p>Arkaleko pinuak direla eta, auzotar batek diputaziokin egoteko eskaera egin du. Aspaldiko gaia da, eta badirudi teknikariarekin hala geratu zela.</p> <p>Arkaleko menditara igotzeko ireki zen atakaren toki horretan aparkaleku bat egitea, Gaztelura etortzen den jendea aparkatu ahal izateko.</p> <p>Peluko depudaroran orain ere, usain txarra dago eta baita ur zikina ere.</p> <p>Bidegorria izango den galdetu da. Aparkelektik Malkorraren atzetik joango dela aipatu da. Hala ere, terreno batzuk falta dira, etxeen garapenarekin joango da terreno batzuen zesioa.</p> <p>Barianteko aparkalekuen inguruan galdetu da. Ia ezin den zabaldu. Iparralde etorbide erdian lortu dela aipatu da, baina beste erdian bi aldeetan ezin da aparkatu. Beheko plazako aparkeleku berriaz hitz egin da. Mugikortasunaren eredu berrien berri eman da (norabide bakarreko bideak...).</p>
--	--

BALORAZIO ORRIA:

Hizlariak: bileran zehar emandako azalpenak	7,60
bilera ongi gidatu da	7,50
Bileran erabili den metodologiaren egokitasuna	7,75
Auzotar kopurua	4,25
Auzotarren partehartzea (ekarpenak egiten)	5,25
Saioa probetxugarria izan al da?	7,00
Egunaren egokitasuna	8,00
Orduaren egokitasuna	7,50
Lekuaren egokitasuna	8,00
Batezbestekoa	6,98